kirol ...eta kitto!
705 zkia. 2010-I-15 ASTEKARIA
TOKIKOM



# Elurrak eskainitako aukerak

# HOTZEAN GOZO

XV. Eibarko Kirol Sariak

orain duzu aukera!
matrikula zabalik
aek
www.aek.org
Sostoa 1, 1. solairua Telefonoa: 943 201 379 eibar@aek.org


Zatoz gurera eta goza ezazu kirolaz!
Bizi itzazu kirol emanaldiak zuzeneko apustuekin!
Kirol informazio eguneratuaz baliatu zure apustuak egiteko
Goza ezazu gure lokaleko giroaz! Orain ere, taberna zerbitzuarekin
Hemen gaude:
Eibarreko tabernetan ere aurkituko gaituzu: Ametsa, Cervecería Trinkete, K-OX, Sokoa, Xania, Zubi Gain, Caserío (Amaña)
www.kiroljokoa.com
kiroljokoa


IMH Ingeniaritza Eskola
txandakako sistemarekin
ingeniaritza imh
Ikasi eta lan, guk biak egiten ditugu!
Ate irekiak
URTARRILAK 23 (11:00etan)
MARTXOAK 6
APIRILAK 24
MAIATZAK 29
UZTAILAK 1
IMH - Azkue auzoa, 1 - 20870 Elgoibar - Tfnoa. 943 74 41 32 imh@imh.es - www.imh.es

...eta kitto! Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:**
...eta kitto! Euskara Elkartea
**HELBIDEA:**
Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar
**TELEFONOAK:**
943 20 67 76 / 943 20 09 18
**FAXA:**
943 20 28 72
**Astekariaren E-MAILak:**
erredakzioa@etakitto.com
komunikabideak@etakitto.com
publizitatea@etakitto.com
**Elkartearen E-MAILak:**
elkartea@etakitto.com
normalizazioa@etakitto.com
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu
Jose Luis Gorostegi
Silbia Hernandez
Koldo Mitxelena
Ekhi Belar
**ADMINISTRAZIOA:**
Marisol Uriarte
**KOORDINATZAILEA:**
Koldo Mitxelena
**ERREDAKZIO-BURUA:**
Silbia Hernandez
**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**
Jose Luis Gorostegi
**ARGAZKI ARLOA:**
Maialen Belaustegi,
S. Hernandez eta E. Belar.
**HIZKUNTZA ARDURA:**
Juan Andres Argoitia
Maider Aranberri
**PUBLIZITATEA:**
Itziar Albizu
Belen Ulazia
**Tfnoa:** 943 20 67 76
**AZALEKO ARGAZKIA:**
Ekhi Belar
**BANAKETA-ARDURADUNA:**
Ainhoa Luz
**TIRADA:**
*8.000 ale*
**INPRIMATEGIA:**
GERTU koop. (Oñati)
**COPYRIGHT-A:**
...eta kitto!
**LEGE-GORDAILUA:**
SS/430/92
ISSN: 1132 - 1679
*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**FLOTA.-** Intsus-adarrarekin egindako jostailua . Trapu edo paper bolatxoak jaurtitzeko erabiltzen zen. *"Eskolako gaiztuak flotakin jaurtzen zetsan maixuari kokotera".*
**FORTIZ.-** Bortitz, gogorra, indartsua. *"Patxar hau fortiza da".*
**FOTA.-** Gosarian jaten zen ogi-opila. *"Fotak ziran txakur txikikuak eta txakur haundikuak".*

# ESKUTITZAK

### SECUNDINO LOIDI (PAMPO)

Astelehenean, hilaren 11n, Eibarren egindako ekitaldi zibilean, agur esan genion 90 urterekin hil zen Secundino Loidi Erquicia-ri (Pampo-ri).

Lagun mina zuen José Luis Garay Aizpuruak "babestuta" oraindik ere harrotasunez betetzen dudan Eibarko Txirrindularien Elkarteko zuzendaritzakide izatera sartzean, 1964ko urrian ezagutu nuen Pampo; hala esaten genion-eta bera ezagutzeko pribilegioa izan genuenok. Ordurako luzaroan ziharduen Pampok horrenbeste poztasun eman digun Klubean.

Isila eta apala, baina eraginkorra klubaren eta Eibarko Bizikletaren aldeko beharrean, "Secun" idazkaria izan zen 1956an eta 1957an, Ramon Sarasua presidentea eta José Luis Valenciaga presidenteordea zirela. 1958an eta 1959an kluba zuzentzeko ardura egokitu zitzaion; Jesús Loroñok eta Antonio Bertránek hurrenez hurren irabazitako Eibarko Bizikletako VII. eta VIII. edizioak ere berak antolatu zituen.

1960an J. L. Valenciagak hartu zuen bere lekukoa, baina "Secun"-ek zuzendaritzako kide izaten jarraitu zuen eta 1964ra arte irteera eta helmugako epaile izan zen. 1965ean Felipe Fernándezek kluba zuzentzen zuela, atzera ere Eibarko Bizikletaren Lasterketa Zuzendari izatera pasatu zen.

Marrazkilari trebea izanik, gerora nik nere gain hartu nuen etapen perfil, grafiko eta bestelakoak diseinatzeko lana berea zen. Berarengandik ikasi nuen "aurreikusitako ordutegiak" kalkultzen, abiaduraren arabera. 1966an eta 1967an Pampo eta gaur egun gure artean ez dauden beste eibartar askok 1926an sortutako klubaren oinarria izaten jarraitu zuten.

Beti joan ohi zen desagertutako Euskal Bizikletako irteetara eta berba egiteko aukera izaten genuen: "Zeuek bai kemena zuek!" esaldia urtero errepikatzen zidan, begien aurrean zuenarekin ezin sinistuta, baina hunkituta, Juanita emaztearen besotik helduta zihoala.

Pampo bezalako "rockero zahar" guztiei asko daukagu eskertzeko, ondorengo belaunaldiei klub bat, kirol bat eta kolore batzuk maitatzen erakusten jakin zuten. Lerro hauen bitartez eta herriko txirrindulari familiaren izenean, dauden tokian egonda zera helarazi nahi diegu: zuen koordenadei jarraituko diegu.

Eskerrik asko, Presidente. Goian bego, maisu.

*JOSE ARANBERRI (EIBARKO TXIRRINDULARITZA ELKARTEA)*

## asteko HEMEROTEKA esaldiak

*"Ni bertsoetatik bizi naiz eta 180 saio egin behar ditut urtean soldata ateratzeko. Edozein institutu-irakaslek edo ikastola-irakaslek adina aldiz joan behar dut lanera. Ematen du izarrak garela eta abar, baina keba! Nik fitxatzen dut edozeinek adina aldiz!"*
(Andoni Egaña, bertsolaria)

*"2002an 130 operadore, 400 langile eta 24 milioi euroko negozio bolumena genuen. Hau da, sei makina genituen EAEn mila biztanleko. Gaur egun, enpresa eta makina gehiago izan arren, negozio bolumena jaitsi egin da. Eustearekin nahikoa dugu!"*
(Carlos Abad, Euskadiko Vending Elkarteko presidentea)

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

kutxa

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria*

# auzorik auzo



## San Anton jaiak Azitainen

**Bihar eta etzi San Anton jaia bete-betean biziko da Azitain aldean.** Zapatuan 10.30etatik aurrera ekingo zaio jai egitarauari, hainbat ekitaldirekin. Industrialdeko Altzubarren frontoian pelota jaialdia jokatzen hasiko dira. Erik Lantz eta Adrian Alvarezek osatutako bikoteak Ander Agirresarobe eta Alain Hidalgok osatutakoa izango du aurkari eta, ondoren, bigarren partiduan Gaizka Unamunzagak eta Igor Egañak, Josu Arrillagarekin eta Iker Agirrebeñarekin neurtuko dituzte indarrak. Eta lehian izango dira baita III. San Anton xake-lehiaketako partaideak Azitaingo plazan. Eta ordu berean abiatuko dira mountain-bike martxako txirrindulariak. Eguerdi aldera, berriz, umeendako jolasak hasiko dira Azitaingo plazan: lapiko-apurketa, kaskara-batzea, untxia harrapatzea eta beste hainbat jokotan parte hartzeko aukera izango dute horretara animatzen direnek. Bestalde, eta jaiarekin bat egitera doazen guztientzat, txorizoa eta salda doan banatuko dute Azitaingo Jai Batzordeko kideek. Eta 13.30etan goizeko lehiaketetako irabazleei sariak banatuko dizkiete, plazan.

Jaiak biharamonean, domekan jarraituko du: 12.00etan Azitaingo elizan meza herrikoia ospatuko da eta, ondoren, nagusien ordezkariei omenaldia eskainiko diete. Eta 13.00ean, elizan bertan, umeendako opari batzuk zozketatuko dituzte. Kezka dantza taldekoek, berriz, euskal dantzen erakustaldia egingo dute eta, jaia agurtzeko, “San Anton 2010” otarren zozketa egingo dute.



## Herria zuri-zuri

**JOAN DEN ASTEBURUAN IZAN ZEN ELURTEAK ZURI-ZURI UTZI ZUEN HERRIA** pare bat egunetan zehar, eta paisaia ederra ikusi ahal izan zen herrian bertan eta inguruko mendietan. Elurra bota eta bota hasi zen barixakuan eta zapatuan areagotu egin zen elurtea. Horrela, domeka eta astelehenean jaso ziren tenperatura baxuek elurra eta izotzari eusten zioten herrian. Nabaria izan zen inguruko mendietara igo zen jende kopurua. Bertan, trineo, plastiko, snowboard eta halakoekin ibili zen jendea, edo ibilaldia egiten, beste barik.

**Gestioari kexa**

Eli Gomez Ezker Batuko zinegotziak Udalak elurtearen aurrean egindako gestio txarra salatzen du eskutitz batean. Bere aburuz herriko hainbat kale eta leku elurtuta eta izoztuta egon ziren asteartera arte, batez ere auzo altuak, handik ibiltzea arriskutsua izanik. Gomezek dio Udalaren aldetik ez zela inolako planifikoaziorik eta ekintzarik egin (gatza bota edo elurra kendu) hori ekiditeko.



## Erregeen kabalgata euripean

**EGURALDIAK LARREGI LAGUNDU EZ BAZUEN ERE, UME ZEIN HELDU** mordoak ez zuen galdu nahi izan Ekialdetik etorritako hiru erregeen kalejira. Meltxor, Gaspar eta Baltasar Udal Dibujo Eskolakoek prestatutako karroza ikusgarrian zeharkatu zituzten herriko erdialdeko kaleak, Cielito Musika Bandaren atzetik eta 250 bat umek lagunduta. Gamelu eta guzti ailegatu ziren oraingoan eta ibilbide osoan gozokiak banatzeaz gain, amaieran udaletxeko balkoitik baloiak bota zituzten. Kabalgataren aurretik Astelena frontoian izan ziren, Ipurua Dantza Garaikidea, Ipurua Gimnasia Erritmikoa eta Eibarko Balleta taldeetako neska-mutilen koreografia ikusgarriak ikusten.

# Iru garabiak eraitsi dute

**EIBARKO SAIHESBIDEAREN HIRUGARREN ZATIKO BEHARREK** aurrera diraute. Legarreko zaharren egoitza bien artetik doan bariantea Sallobenterekin, autobiderako sarrera-irteerarekin lotzeko eraiki beharreko errepidearen luzeera ez da handia (ez da hiru kilometrora ailegatzen), baina trazatuak zailtasun handiko hainbat puntu zeharkatzen ditu. Beharrak egin ahal izateko, gainera, Hezkuntza Esparruaren pareko Iru garabiak hartzen zuen enpresa eraitsi dute, argazkian ikus daitekeen moduan.






# Garraio publikoaren erabilera sustatzeko beharrean

**DEBEGESAK, ETA MUGIKORTASUN-MAHAIAN HARTUTAKO KONPROMISOARI JARRAITUTA** eta Debabarreneko (Deba, Eibar, Elgoibar, Ermua, Mallabia, Mendaro, Mutriku eta Soraluze) udalek bultzatuta, garraio publikoari bultzada emateko kanpaina abiarazi dute aste honetan bertan, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren laguntzarekin. Herritar guztiei buzoian sartuko zaie Debabarrenako garraio publikoaren ibilbideak zein ordutegiak jasotzen dituen liburukia, bestelako informazio osagarri eta interesgarria batzen duen buletinarekin batera.



# 3.000 euro Haitira, laguntzeko

**RITCHER ESKALAN 7 GRADUKO LURRIKARA JASAN ZUEN HAITIK MARTITZENEAN** eta horren ondorioz sortutako kalteak zenbaezinak dira, lurrikararen ondorioz hil eta zauritu direnen kopurua bezala. Hondamendi honen aurrean Eibarko Udalak Haitira 3.000 euro bidaliko ditu, hango larrialdi egoera leuntzeko. Harrapatuta daudenen bilaketa eta erreskaterako, osasun larrialdietarako, ur eta saneamendurako, larrialdiko ostaturatzerako, logistikarako eta telekomunikazioentzako erabiliko da Udalak igorritako laguntza.


**Helbidea**

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

EIBAR
CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

1 Kardiologia
2 Zirugia
3 Dermatologia
4 Dietetika eta Nutrizioa
5 Analisi Klinikoak
6 Ortodontzia
7 Otorrinolaringologia
8 Pediatria
9 Psikiatria
10 Radiologia
11 Traumatologia
12 Barne Medikuntza
13 Koloproktologia
14 Erizaintza
15 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa

BERRIA:
Foto-depilazio Unitatea

ZERBITZU BERRIA
EIBAR OSASUNDEGIAN

FISIOTERAPIA ESPEZIALIZATUA
ZORU PELBIKOAREN ERREHABILITAZIOA
UROLOGIA, GINEKOLOGIA, KOLOPROKTOLOGIA

Gernu inkontinentzia
Haize inkontinentzia
Inkontinentzia fekala
Dispareunia
Postpartoa
Organo pelbikoen prolapsoak
etab.

*Deitu ezazu eta informa zaitez Eibar Osasundegian!*
*943 12 02 00*



Enrike Zuazua

## Galileo

2009 nazioarteko astronomiaren urtea izan da. Astronomia, nahiz eta zientzia sakona izan, gure eguneroko bizitzan badu bere lekutxoa. Zeruari dagozkien kontuak denoi interesatzen zaizkigu; denok bizi gara zeru beraren azpian, eguzkia eta ilargiaren arteko rol banaketa berezia delarik medio. Denok dihardugu, udan neguan baino gehiago, zerura begira, izarrak edo hodeiak nagusitzen diren begira eta horrek hurrengo eguneko eguraldiari buruz zer ekarpen izan ahal duen asmatu nahian. Denok jarraitzen ditugu ilargiaren gorabeherak eta hilero harritzen gara ilargi beteak gure gauak argiz betetzen dituztenean. Badira horri buruzko euskal abesti famatuak ere, Itoitz-en "Lau teilatu gainean., ilargia erdian" dioenak bezala. Lurretik gorantz begira izaten gara zerua hausnartzen. Lurra, izatez, planeta txikia da, eguzki sistemako beste bat baino ez. Eguzkia, lurraren aldean erraldoia da. Eguzki-sistema "Esne Bidea" galaxiaren parte txikia besterik ez. Bere barnean 200 eta 400 arteko mila milioi izar dira. Izena, Esne Bidea, aintzinako Greziatik datorkigu. Baina guzti hori, soilik 1609 urtean, bi mila urte ondoren, baieztatua izan zen Galileo-k (Pisa, 1564 - Florentzia, 1642) eginiko behaketen arabera, berak sorturiko teleskopioari esker. 2009an 400 urteurrena bete da Galileo-k bere lehen teleskopioa eraiki eta Esne Bidea delako galaxia aztertu zuela. Bera izan zen zientzia modernoaren guraso nagusiena. Berak esan zuen natura matematikaren hizkuntzan idatzita dagoela. Baina Galileo bereziki famatua izan zen sasoiko Inkisizioak ez ziolako barkatu garaiko teorien kontra jotzea; orduraino lurra baitzen munduko zentro nagusi eta bakarra. Zientzia eta teknologia, gaurko munduko euskarriak, berari zor dizkiogu. Eibartarron artean ere baditugu arlo horretan dihardutenak. Hor dago, adibidez, Javier Gorosabel astronomo trebea, leherketa kosmikoak behatzen eta ulertu nahian dabilena. 2010ean ere hor izango da zerua gu guztion babesle eta berau aztertzeko aukera berriak izango ditugu.



## Gureak lantegikoen bazkari arrakastatsua

**URTEROKO MODUAN, AUZOKOAK ELKARTEAK GUREAK LANTEGI BABESTU ETA BEHARGINENTZAT** bazkari ederra antolatu du aurten ere, behin Gabonak igarota, Erregeen eguna ospatzeko. Aurreko zapatuan beharra gogotik egin zuten sukaldariek zein mahaiak zerbitzen ibili ziren boluntario guztiek, Urkusu Gain eta Erdi Bana elkarte gastronomikoetan batutako guztiei bazkaltzen emateko. Matsariako industrialdean dagoen Gureak lantegiak 140 beharginetik gora dauzka eta horiek ez ezik, zuzendaritzako kideak eta begiraleak ere gonbidatu ohi dituzte. Gainera, bazkal-ostean opariak banatzen zaizkie, herriko elkarte eta enpresek egindako donazioei esker. Bekuak, Denon Sahatsa, Dorrepe, Edozer, Erdi Bana, Jaiki eta Urkusu Gain elkarte gastronomikoek osatzen duten Auzokoakek 1981. urtean ekin zion ekimen honi.

## Euskal telebistako seinalea, bakarrik digitalean



**EUSKO JAURLARITZAREN ARDURAPEAN DIHARDUEN ITELAZPI ELKARTE PUBLIKOAK** aditzera eman duenez, bere ardura da Euskal Telebistaren TDT digital-multiplexa zabaltzeko ardura eta urtarrilaren 11a eta 15a bitartean zuen aurreikusita Eibarri zerbitzua ematen dion Eibar-Agingan dauden TDT ekipoak piztea. Beraz, gaur bertan lagako zaio telebista kanal horietako seinale analogikoa zabaltzeari. Seinalea jasotzeko arazorik izanez gero, komunitateetako antenak egokitzeko, telekomunikazioetako instalatzaileei deitu beharko zaie.

## 33 milioi euroko aurrekontu zirriborroa



**UDAL AURREKONTUAREN ZIRRIBORROA AMAITUTA DAGO** eta alderdi politikoei banatu diete, hilabete honetan bertan egin beharreko zuzenketak egin edo negoziaketak has ditzaten. Aurreikusitako epeei jarraituz gero, behin-betiko udal aurrekontua otsailean onartzeko moduan egotea espero da. 2010erako zirriborroak 33 milioi euroko aurrekontua aurreikusten du, iazkoa baino %15 txikiagoa. Miguel De los Toyos alkatearen berbetan, *"krisi egoerara egokitutako aurrekontua da, hankak lurrean ipiniz eta modu arduratsuan egina".*

Aurrekontu zirriborroak aurreikusten dituen 33 milioi euroetatik 5 milioi inbertsioetarako erabiliko lirateke. *"Baliabideak sortzeko bide berriak bilatu behar ditugu Udal kanpoko erakundeen bitartez aurreko urteetako inbertsio ahaleginari eusteko"*, dio alkateak.

*Ofizialki urtarrillaren 7xan hasi baziran be, udazkenetik dagoz beherapenak dendetan. Erregiak herrixa uztian hasi dira neguko beherapenak eta dendetan ikusi leikez produktuen preziuak %30, %50 edo %60 bajatu dirala. Beherapenak, deskontuak, eskaintzak… danetarik aurkittu leike.*

# Zelan ikusten dozuz beherapenak?



**Manuel Pérez**
**61 urte**
**bihargiña**

Egixa esan nik ez dot ezebe erosten, alabek erosten deste arropia eta halakuak. Askotan aittatu deste: *"Urtarrillera itxoingo dogu arropak erosteko, beherapenak daguazelako".* Holan, eurak beherapenak aprobetxatzen dittue arropia erosteko, zeozer bai behintzat.



**Arrate Berasaluze**
**64 urte**
**jubilaua**

Beherapenak beti dira ongi etorrixak, baiña uste dot etorkizunian desagertu egingo dirala. Onena izango litzake bihar dan preziua ipintzia urte osuan, eta ez ibiltzia oin produktuak %30 edo %50 jaisten. Beherapenetan be saltzailliak dirua egitten dabe, irabazten urtetzen dira.

**Mari Luz Ruiz**
**39 urte**
**saltzaillia**

Ez dot bereziki aprobetxatzen beherapen sasoia arropia erosteko. Tenporada osuan zeozer falta jatanian erosi egitten dot, beherapenetara itxoiten egon barik. Lantzian behin beherapenetan zeozer interesgarrixa ikusten badot, erosten dot, baiña ez derrigorrez.



**Guillermo Burgoa**
**36 urte**
**arrain-saltzaillia**

Ez jata bape inporta beherapenak egotia edo ez, paso egitten dot. Urtian zihar zeozer gustatzen bajata erosi egitten dot, bardin desta beherapen sasoia izan edo ez. Ez dot apropos itxoitten beherapen sasoia aillegau arte arropia erosteko, ez detsat horri begiratzen.








## TEEN-AJEA



...eta kitto!-ren Kirol Sariak banatu ziren, ohikoa den legez, urtearen azken egunean, abenduaren 31an, Portalean. Urtean zehar kirol ezberdinetan destakatu duten herriko kirolariak izan ziren bertan sarituak eta gazteen presentzia aipagarria izan zen. Pelotan, adibidez, Gaizka Unamunzagak (19 urte) lortu zuen saria.

**GAIZKA UNAMUNZAGA, pelotaria:**

# “Profesional izatera iristea oso zaila da”

***- Zer moduz sentitu zinen ...eta kitto!-ren Kirol Saria jasotzean? Espero zenuen?***

Besterik gabe. Espero, ba tira, espero nuen, izan ere, nahiko ondo ibili izan naiz urte osoan zehar (2009an) eta ikusten nuen saria eskuratu nezakeela.

***- Zeintzuk esango zenuke izan direla zure merituak saria lortzeko?***

Orokorrean ondo jokatu dudala izan da meritua, nahikoa destakatu dudala urte osoan.

***- Urtea hasi eta lehiatzen ari zarete jada Deporreko pelotariak. Zein txapelketatan ari zara orain?***

22 urte azpikoen Euskadiko Ligan dihardut orain, bakarkakoan eta frontoi osoan.

***- Eta nola doakizu?***

Latza da. Oso maila handia dauka Euskadiko Ligak eta asko igartzen da. Hau da horrelako txapelketa batean parte hartzen dudan lehen aldia eta gaitza da.

***- Bakarka zabiltzala aipatu duzu, baina zer duzu nahiago: bakarka ala binaka aritzea?***

Binaka dut nahiago, baina bakarkakoan ere gustura aritzen naiz. Bietan nabil gustora ta bietan ikasten duzu zerbait.

***- Noiz arte ibiliko zara Euskadiko Ligan?***

Zortzi neurketa dira eta bakarra jokatu dut, beraz, kalkulatzen dut bizpahiru hilabeteren bueltan amaituko dela txapelketa.

***- Eta ondoren zer?***

Ondoren binakakoan arituko naiz.

***- Profesional izatera iristeko aukerak ikusten dizkiozu zure buruari?***

Oso zaila da. Oso maila handia dago eta urrun ikusten dut aukera hori. Momentuz pelotan jokatzen jarraituko dut gustuko dudan kirola delako, afizio moduan, eta gero ikusiko da zer gertatzen den. Aukera heltzen bada, ondo, eta bestela berdin dio.

***- Noiztik zabiltza pelotan?***

Ikastolan nenbilenean hasi nintzen, txikitan, Jose Mari Bengoetxearekin polikiroldegian. Horrela orain arte.

***- Eta noiz arte?***

Aspertu arte. Zaila da esatea noiz izango den. Ikusiko da.

BAMETSA BAR EIBAR
Toribio Etxebarria, 4

San Andres Gozotegia
• tartak
• enkarguak
etxera
Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

# Egun alaia abeslari eibartarrentzat

ETBko kamarak herrian izan ziren joan den astean gazte talde bat grabatzen. *"Zeintzuk dira, bada hauek?", "zertan daude kamerak hemen?"*, pentsatuko zuten Txaltxa Zelaitik igaro zirenek hangoa ikusita. Ba gazte taldea Eibarko Koro Gaztea zen. Eta zergatik zeuden kamerak han? ETBko 'Oh happy day' saioan parte hartzen dutelako eibartar horiek.

Ez du bide samurra egin Eibarko Koro Gazteak 'Oh happy day' saiora heltzeko. Saioa urtarrilaren 23an hasiko bada ere, uztailetik daramatzate itxaroten gazteek, izan ere, orduan gainditu zuten casting-a. Hiru sailkatze galen ostean, beste zortzi kororekin lehiatu ziren eibartarrak 'Oh happy day'-ren azken txanparako txartela lortzeko. Euren zorionerako Maixa Lizarribarrek, Joxe Mendizabalek eta Iñigo Arbizak osaturiko epaimahaiak baiezkoa eman zion talde eibartarrari.

Helburua lortu zen: Eibarko Koro Gatzeak 'Oh happy day' saioaren azken txanpan hartuko zuen parte. Baina, horrekin batera, lan gogorra zegoen egiteko aurretik. Urtarrilean hasiko zen saioa, sei hilabete aurretik, gauza asko prestatzeko hilabete horietan.



Eibarko Koro Gaztearen hainbat irudi grabatzen ibili ziren ETBko kamerak. / Ekhi Belar

**The Jackson Five-n 'ABC'**

Saioa, gainera, ez dute edonola hasiko eibartarrek. Joan den ekainean hil zen Michael Jacksonen abesti bat interpretatuko dute gazteek lehen saioan: Poparen erregearen 'ABC'. The Jackson Five taldeko kidea zenean egindako abestia da hau, Michaelek Jackie, Tito, Jermaine eta Marlon anaiekin zi-harzuenekoa. Hain abesti mitikoa izanda eta Michael Jacksonek bere heriotzaren ostean hartutako aura berezia kontuan izanda, zer esan asko izango dute eibartarrek 'Oh happy day'-ren lehen saio horretan.

Eibarko Koro Gaztearen ikuskizuna hilaren 23an ikusiko bada ere ETBren lehen katean, gaur bertan egingo dute saioaren grabaketa Miramonen. Zita honen aurrean asko entsaiatu du talde eibartarrak. Gainera, kontuan izan behar da urtebete eskas duela koroak (2008ko urrian sortu zen), beraz, hutsetik hasi behar izan zuten orduan eta heldu diren lekura heltzeko lana gogoz egin dute, eta ikusten denez oso ondo gainera.

**Musikara hurbildu**

Esan bezala, urtebete eskas darama martxan Eibarko Koro Gazteak, eta 15 eta 18 urte bitarteko gazteek osatzen dute taldea. Euretariko gehienak Musika Eskolako ikasleak edo ikasle ohiak dira, baina badago hortik kanpoko jendea ere. Horrela, musikara hurbiltzeko aukera handia da Elena Martinen gidaritzapean dabiltzan gazte hauentzat, partiturekin egiten dutelako lan eta, oraingoan ikusten denez, telebistan aritzeko beta izaten dutelako.

Lazkao, Irun, Errenteria, Mallabia, Donibane Lohizune eta Barañaineko koroak izango dituzte lehiakide eibartarrek 'Oh happy day'-en. Zita hilaren 23an, ETB 1-ean.





# Eibarko XV. KIROL SARIAK

## 2009-XII-31





SARI BEREZIA:
Ramon Telleria.



EUSKERA SARIA:
Jose Mari Bengoetxea.



GIMNASIA ERRITMIKOA:
Ipuruako Infantil mailako taldea: Noelia, Maria F., Irati, Cristina, Ane eta Maria E.



ARETO-FOBALLA:
Rafael Alberdi.



ARKU TIRAKETA:
Pablo Gaztelu.



ATLETISMOA:
Oihane Sarasketa.



AUTOMOBILISMOA:
Cristian Pérez.


**ERRUGBIA:**
Igor Sendino.


**ESKIA:**
Irati Fernández.


**ESKUBALOIA:**
Imanol Alvarez.


**FOBALLA:**
Lorena Valderas.


**HERRI KIROLAK:**
Aitor Buendía.


**HIRU TXIRLO:**
Faustino Lazkano.


**IGERIKETA:**
Ander Romarate.


**JUDOA:**
Eneko Lores.


**KARATEA:**
Tamara Amador.


**MENDIA:**
Fernando Lete.


**MOTOZIKLISMOA:**
Aitor Montero.


**PILOTA:**
Gaizka Unamunzaga.


**SASKIBALOIA:**
Alberto Martínez-Alcocer.


**SQUASH:**
Jon Losada.


**TIRO OLINPIKOA:**
Asier Lamariano.


**TRIATLOIA:**
Josu Gisasola.


**TXIRRINDULARITZA:**
Ane Santesteban.


**WATERPOLOA:**
Paben Ortíz de Zarate.


**WU-SHU:**
Erick López.


**XAKEA:**
Julen Garro.

**FOBALLA.-** Erregional mailako talde nagusienak, Eibartarrak-ek, maila galdu arren, I. mailan jarraitzen du, desagertutako beste talde baten postua hartuta. II. Erregionaleko beste hiru taldeek, hau da, Gazteak, Urki eta Eibartarrak-ek aurreko denboraldikoari eusten diote: lehenengoak igoera fasea jokatuko du seguruenik eta beste biek Kopan hartuko dute parte. Urkiko nesken taldeak nabarmendu dira, batez ere. Eibartarrak-ek, bestalde, taldearen I. Eguna ospatu zuen irailean. **ARETO FOBALLA.-** Jubenil mailako Asador Azitain azpitxapeldun geratu zen, finalean galduz. Seniorretan, bestalde, Debabarrenak maila galdu zuen. Concepto-Createch talde berria sortu dute. **FOBALL ZALETUA.-** Tecnografik-Aelvasak irabazi zuen Liga txapelketa eta JoseAutosek Kopa, Txokori finalean nagusituz. Azken honek eta Vivaldik euren 25. urteurrena ospatu zuten.



Asador Azitain, areto-foballeko jubenil mailako taldea.



Tecnografik-Aelvasak irabazi zuen foball zaletuen Liga txapelketa.





Urkiko neskek maila bikaina eman dute jokatu dituzten torneo guztietan.



Foball zaletuaren sari banaketa ekitaldiaren irudia.



Gazteak taldea izan zen ordezkari onena 2. Erregional mailan.



Eibartarrak taldeak euren Eguna ere ospatu zuen irailean.



Urkik lan bikaina jarraitzen du egiten foball promozioan, batez ere gazteenekin.




MARISOL ARANZETA UNZALU

60. hamarkadan Gure Ikastolako Andereñoa

Zuk ereindako haziak gaur ere
fruitu oparoa ematen jarraitzen digu.
MILA ESKER!

50.urteurrena



Viaderoren taldea 2. B mailako liderra da gaur egun.



Maila galdu arren, taldeko peñen animoek ez dute kalerik egin.



Barriusok lekukoa pasa zion Aranzabali; argazkian, Diputazioko Ugarteburu eta Galdosekin.

**EIBAR FOBALL TALDEA.-** Urte kaskarra izan zen orokorrean, talde nagusiak maila galdu zuelako. Gauza bera gertatu zitzaioan nesken talde nagusienari, baina azkenean Superligan dihardu estatuko talde onenekin batera. 3. mailakoak larri, baina eutsi zion mailari. Zuzendaritzan Barriusok lekukoa pasatu zion Aranzabali eta, entrenatzaileen artean ere, Pousok eta Uribek azkenean Viaderoren esku laga dute 2. B mailako taldea, Merinok zuzentzen duen kirol arloaren aholkuei jarraituz. Berri pozgarrien artean, Ohorezko jubenil mailakoek Euskal Ligara igotzea lortu zuten berriro. Aurrekontuak onartzeaz aparte, Eibar 2012ra arteko plana aurkeztu zuten zuzendaritzakoek. Eibarko jokalari askok dihardute inguruko taldeetan: horren adibide, Kopako finalera Athletic-ekin heldu ziren Susaeta eibartarra eta Eibartik hara joan zen Tokerorena.



Eibarko neskek lehenengo aldiz dihardute Superligan.



Uribek emaitza kaskarra eman zuen gure artean.

Centro de fisioterapia
Manu Sánchez

KIROL FISIOTERAPIAN ADITUAK

• Fisioterapia
• Osteopatia
• Kirol-masajea eta terapeutikoa
• Errehabilitazioa
• Kirol lesioen tratamendua
• Elektroterapia

**Txaltxa Zelaiko parkingetik 50 metrora, herriaren erdi-erdian**

Juan Gisasola, 14 • Tel.: 943 127 078 • EIBAR (Gipuzkoa)

**ESKUBALOIA.-** Asobaleko talde nagusiaren lanak oztopo larria izan du, arazo ekonomikoek eragindakoa. Hala ere, mailari eusteaz gain, EHF Kopa ere jokatu zuen taldeak, final-laurdenetaraino ailegatuz. Denboraldi amaierarekin batera, jokalari asko (Malumbres, Jurkiewicz, Ivo Díaz, Kobine, Arrieta...) joan ziren; horiek ordezkatzeko etorritakoek mailari eutsiko diotela dirudi. Euskadiko Kopa bereganatu zuen taldeak, Bidasoari 32-25 irabaziz. Jubenil eta kadete mailako taldeek Espainiako txapelketako azken faseetara iritsi ziren; Eibarren jokatutako kadete mailakoan, bigarrenak izan ziren Bartzelonaren atzetik. **SASKIBALOIA.-** Probintzia mailan jarduten dute gure ordezkari biek, Ruibal Alquiler-ek eta Katu-Kalek, euren arteko lehia parekatuak eskaini dizkigute aurten. Ruibalek goiko postuen bila lehiatzeko asmoa du Ligan.


Aldaketa asko izan dira Arrateren talde nagusian.



Jubenil mailako taldea Euskadiko eta Gipuzkoako onena izan zen beste behin.


Kadete mailako taldea ere, ohikoa denez, Espainiako txapelketako faseetan izan zen.


Dalibor Cuturak jarraitzen du izaten Asobal Ligako taldearen euskarri nagusia.


Arratek promozio lan bikaina jarraitzen du egiten.


Arazo ekonomikoei aurre egiteko, hainbat ekimen ipini dira martxan.


Saskibaloiko Eibarko talde biak lehia parekatuak izan dituzte euren artekoetan.


Baloncesto Eibar-ek, izena ez ezik, taldea asko aldatu du aurten.

DIPUTAZIO ETORBIDEA 8-10 ERMUA
KIROL MEDIKUNTZA
indartu
ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA
ERA GUZTIETAKO MUTUA ETA ASEGURUEKIN KONTZERTATUA

- ODOL ATERATZE ZENTRUA / EGUN BEREAN ERANTZUNA
- FISIOTERAPIA
- 3. ADINEKOEN MANTENIMENDUA
- ESFORTZU PROBAK
- KONTSULTA ETA ERREKONOZIMENDU MEDIKOAK
- MASAJE TERAPEUTIKOA - KIROL MASAJEAK
- URGENTZIAK
- LANEKO PATOLOGIAK ETA ERIZAINTZA

Tel.: 943 17 21 12 - 943 17 21 16
www.centromedicoindartu.com indartu@euskalnet.net


Balentria handia lortu zuen senior mailako taldeak Ohorezko B mailara igota.


Nesken taldea aurreneko urratsak ematen hasi da.


Pelota eskolak bere fruituak ematen dihardu.


Pelotari onenak izan dira Astelenan udazkeneko, neguko eta udaberriko jaialdietan.

**ERRUGBIA.-** Ohorezko B mailara igotzea lortu zuen talde nagusiak, Caceresi nagusituz. Horrez gain, Bartzelonari irabazi zion final handian, Espainiako txapeldun geratu zen. Hala ere, harrobi lana ez du baztertu Hierros Anetxe Eibar Rugbi taldeak eta, gazteen taldeekin batera, emakumezkoen taldea sortu du. **PELOTA.-** Urtero lez, Astelenak pelota profesionaleko jaialdi mordoa jaso ditu. Klub Deportiboko ordezkariek ohiko torneoetan jardun dute lehian: Udaberri, Kluben Artekoa -hemen I. mailari eusteko asmoz-... Hortik aparte, hainbat txapel ere irabazi dituzte: Bengoetxearena Lezon, kasu. **SQUASH.-** Squash talde berria sortu da Klub Deportiboan eta azpitxapeldun geratu zen Gasteizen. Euskadiko txapelketan jardun eta gero, Ferreirok eta Salgadok Euskadiko selekzioarekin lehiatu zuten. Eibarko torneoan, herriko zazpi ordezkari izan genituen.





Deporreko pelotariak Finalista Egunean. Narbaiza hasi da kopak irabazten. Bengoetxeak bilduma osatzen dihardu.







Klub Deportiboko squash batzordeko ordezkariak. Goian, Eibar Hiriaren irabazlean.

R.A.C.V.N.-ren ordezkaritza
J.A. LASKURAIN
ASEGURU ARTEKARIA S.L.
D.G.S. 1.408 - J
ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK
Urtzaile 1 (alboko sarrera)
Telf. 943 70 28 87 / 943 20 37 13 / 943 12 05 30
Faxa. 943 70 28 87 EIBAR

**IGERIKETA.-** Markel Alberdik, 18 urte bete berri, hor dihardu markak egin eta egin. Aitzol Arrillagarekin batera, Vardulia taldeareklin lehiatu du Espainiako Kopan. Eurekin batera, Nora Varela eta Maria Ezenarro ere Gipuzkoako txapeldun izan ziren. Ander Romaratek ikaragarrizko progresioan jarraitzen du. San Juan Torneoa eta Gabon Kopa arrakastatsuak jokatu dira aurten ere. **WATERPOLO.-** Senior taldean gero eta gazte gehiago sartzeaz gain, kadete eta jubenil mailako taldeak sortu eta neskenarekin ere ahalegintzea erabaki dute Urbat-Urkotronikekoek arlo horretan. Horretarako, gainera, Davide Cerchi entrenatzaile italiarra fitxatu dute. **URPEKOAK.-** Deportiboko taldeak egiten dihardduen lanarekin batera, nazioarteko Euskadiko apnea txapelketa antolatu zen Ipuruan, Frantzia eta Espainiako hainbat ordezkaririkin.



Aitzol Arrillaga eta Markel Alberdi, Urbat-Urkotronikeko ordezkari nagusienak.



Gabon Torneoak talde askotako partaideak bildu zituen.



Ander Romaratek gero eta modalitate gehiago bereganatzen ditu Espainiako txapelketetan.



Asier Eraso da ordezkari nagusiena herriko urpekoen arloan. Aurten ere apnea txapelketa antolatu da Ipuruan.



Gaztetxoenek maila bikainean jardun dute Gipuzkoako txapelketetan.



Waterpoloko talde nagusiko jokalariak Mutrikuko torneoan.



Sestaon Gabon Kopan jardundako parte-hartzaileak.

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:
☎ 943 201095 Faxa: 943 202564

EMAKUME ETA GIZON
MODA

Valenciaga

KONFEKZIOAK

☎ 943 20 22 33

ZULOAGATARREN, 7

**MENDIA.-** Gipuzkoako Finalistaren Eguna antolatu zuten Arraten Klub Deportiboko mendi batzordekoek, probintzia osoko mendizale txikien parte-hartzearekin. Bestalde, ohikoa denez, mendi irteerak egin dituzte hamabostean behin, ohiko irteerak ahaztu gabe: Jardunaldi Mikologikoak, Urkora igoera... Iñurrategik bere azken lana aurkeztu zuen. **ESKIA.-** Deporreko batzordeak ahalegin berezia egin du eta, horrela, hamazazpi eskiatzaile berri sartu dira taldean. Ikastaroak ere bat baino gehiago izan dira Gipuzkoako Mendi Federazioak antolatutakoak. **ESKALADA.-** Patxi Usobiagak munduko txapelketa irabazi zuen Txinan, kurrikulumean falta zitzaion proba bakarra. Munduko Kopa hirugarren aldiz irabazteko lehian ere izan zen, baina azkenean 2. postuarekin konformatu behar izan zuen. Gainera, Espainiako txapela eskuratu zuen Sevillako rokodromoan.


Gipuzkoako Finalistaren Eguna egin zen Arraten.


Usobiagak eibartarren harrera izan zuen udaletxeko balkoian


Urtea ondo hasteko, zer hoberik Urkora igotzea baino?



Usobiaga, bigarren Munduko Kopan. Irati Anda Donostiako belodromoan euskal selekzioaren alde egindako ekitaldian.





Alberto Iñurrategik bere azken lana aurkeztu zuen gure herrian.


San Jose zubian Deporrekoek egindako eski irteeraren irudia.


Olabarria AUTOBUSAK
BERTOKO ETA NAZIOARTEKO TXANGOAK
Besaide 11. ELORRIO
Tel. 607 - 41 06 21 (Eibar) / 94 - 623 16 47 (bulegokoa) / Faxa. 94 - 623 16 47

# 2009/2010
## EIBAR FUTBOL TALDEA
# Aupa Eibar!



2. B Mailako taldea



3. Mailako taldea



Jubeniletako Ohorezko Ligako Urko



Kadeteetako Ohorezko Mailakoa



Infantiletako Ohorezko Mailakoa



Superligako taldea



Erregional B Mailako taldea



Erregional C Mailako taldea



Kadete Mailako taldea



Jubeniletako Euskal Ligakoa



Kadeteetako Euskal Ligakoa



Infantil Txikiko Teknifikazio taldea



Alebinetako taldea

**TXIRRINDULARITZA.-** Euskal Bizikletako arduradunak Euskal Herriko Itzulikoekin batu eta proba bakarra antolatu dute, Euskadi Elkarteatik. Alberto Contador izan zen nagusi, bai proban, bai Arraten. Debabarrena-Kirolgik mutilen eta nesken taldeekin jarraitzen du; azken honek, gainera, Grande Bouclen hartu zuen parte. Ane Santestebanek, bestalde, Mundialetan. Eibarko Txirrindularitza Elkarteak antolatutako probetan, Iñaki Aldanondok bi bereganatu zituen (Abascal Saria eta Otxoa Memoriala); Udaberri Davozentzat izan zen, San Juan saria Elorzarentzat eta Balentziaga entzutetsua Merinorentzat. Katearen Egunean denboraldi berrirako taldeak aurkeztu ziren, eskualdeko txirrindulari onenen presentziarekin. Debabarrenako BikeZona aurkeztu zen eta, baita, I. BTT martxa antolatu ere. Quebrantahuesos proba gogorrean 29 eibartar izan ziren.







Goian, BTT martxaren irudia eta BikeZona taldekideen jauziak. Ane Santestebanek Espainiako txapela eskuratu zuen.



Urkizuko Zikloturisten Elkarteko partaideak Arraten.



Katearen Egunean aurkeztutako Debabarrena-Kirolgi nesken taldea.



Euskal Herriko Itzulia Arraten amaitu zen aurten, Contador-en garaipenarekin.



Afizionatu mailako Balentziaga Memorialaren podiuma.



Otxoa Memorialak Urkizun izan zuen amaiera, Iñaki Aldanondoren garaipenarekin.

Cafetería Sagastiola
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Razioak
- Kazuelitak
Egogain, 5 - behea
Tel. 943 531 802

EKIPAMENDUAK
KIROL-MATERIALA
IGERIKETA
PSIKOMOTRIZITATEA
ALTERNATIBOAK
KROS SPORTS
Julian Etxeberria, 2-4
(545 postakutxatila)
Tel. 943701401 Faxa 943702335

**ATLETISMOA.-** Asier Cuevas maratoiko Espainiako azpitxapeldun izan zen, Zumarragako eta beste herri-krosak irabazi aurretik. Bolunburu Memorialean ere bera izan zen nagusi. Txapeldun asko egon dira Inma Urkiolak entrenatzen dituen Deporreko atleten artean: Peio Osoro Espainiako azpitxapelduna izan da hexatlonean, Laura Albistegik Euskadiko eta Gipuzkoako txapelak jantzi ditu altueran, Jokin Azkoaga eta Martin Vouilloz nagusi izan dira Gipuzkoakoetan eta Oihane Sarasketak Euskadiko martxa txapelketa bereganatu zuen, beste askoren artean. Herri-proben mailan, Walter Becerrak eta Nerea Amilibiak irabazi zuten Simon Aldazabalen. **DUATLOIA.-** Ane Ziaran eta Alejandro Altuna, bata juniorretan eta bestea beteranoetan, onenetakoen artean egon dira triatloi probetan. Iñigo Agirrek Mutrikuko herri-krosean marka egin zuen.



Eibar Triatloi Taldeko partaideak Ondarroako proban.



Bolunburu Memorialean eguraldiak ez zuen lagundu.



Asier Cuevasek erdi mailako eta distantzia luzeko lasterketei ekin die azkenaldian. Inma Urkiolak egindako bolondres lana errekonozitu zuten.





Ohiko Eibar Hiriko Duatloiaren ordez, herriko I. Gazte Duatloia antolatu da.



Simon Aldazabal herri-lasterketak 66 parte-hartzaile izan zituen.



Urki-Galdaramiño-Urki jokatu zen lehenengo aldiz, 29 lagunekin.



Amaña-Urko-Amañak bere XIII. edizioa bizi izan zuen auzoko jaietan.



E S K A B A Z I O A K

BERGARETXE S.L.

leherketak, eraispenak, eskabazioak eta garraioak

Arragueta 2 - Bis B, behea B

Telefonoa: 943 70 19 54 Faxa: 943 53 16 91

**HERRI KIROLAK.-** Sanjuanetako Euskal Jaialdiarekin batera, Sanisidroetako eta Sanandresetako aizkora torneoak gero eta indar handiagoa dihardute hartzen; hiruretan, han izan dira Bihurri eta Cortina. Bihurrik Larretxearekin irabazi zuen Arraten eta Telletxearekin Untzagan, Sanandresetan. Hodei Ezpeleta gazteak erakustaldi politak egin ditu. Aretak eta Mendigoitxik hartu dute parte, euren idi bikoteekin, Debako entzute handiko idi-proba txapelketan. Aretak 6. postuan amaitu zuen. **HIRU TXIRLO.-** Bittor Astigarraga Asola-Berriko ordezkariak Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketa irabazi zuen. Irusta elgoibartarrak, bestalde, Euskadikoa bereganatu zuen. **BOLO PALMA.-** Jesus Salmonentzat izan zen Casa Cantabriak antolatzen duen Eibar Hiria. Guztira, 76 tiralari izan ziren Ipuruako bolatokian, tartean Asturias, Kantabria eta Madrildik etorriak.


Sanjuanetako Euskal Jaialdian parte hartu zutenak.

Bihurrik eta bere seme Hodeik hainbat kirol probetan jardun izan dute.




Asola-Berriko ordezkariek Gipuzkoako eta Euskadiko hiru-txirlo txapelketak jokatu dituzte.


Dioni Kortina Arrateko Kofradia Egunean.


Debako idi-proba entzutetsuetan Eibarko ordezkari bi izan dira.


Casa Cantabriak antolatutako bolo-palma txapelketan 76 tiralarik hartu zuten parte.


Bittor Astigarraga da Gipuzkoako Hiru-Txirlo txapeldun berria.

ZURICH
Lejardi S.L Aseguru Agentzia
Tel 943201149 Plaza Barria 8 Eibar



Kalamuako judoka onenek hainbat torneotan jardun dute.



Ramon Quinak prestatutako wu-shuko taldea Espainiako txapelketetan.



Kiroldegiko Jator taldeko eta Urki-Amañako ordezkariek Eibarko karate maila erakutsi dute.

**JUDOA.-** Kalamuako judoka guztien irakasle izan den Manu Agirrek 7. Dana jaso zuen Madrilen. Bere ikasleen artean, lau domina eskuratu zituzten jiu-jitsuko Euskadiko txapelketan; Nekane Muguruzarendako izan zen Gipuzkoako txapela alebinetan; eta, Andorrako torneoan, Natalia de Diosek eta Unai Soraluzek brontzezko domina banaren jabe izan ziren. **KARATEA.-** Amara Tamador Jator taldeko ordezkaria Europako azpitxapeldun izan da. Urki-Amañako Jesus Castillo hirugarrena izan zen Euskadiko txapelketan eta Javier Murillo laugarren. **WU-SHU.-** Ttatt Gimnasioko ordezkariek lan bikaina egin zuten Euskadiko txapelketan, lau txapel jantziz: Eneko Baz onena izan zen Nang Quang eta Borrokan, Eric López Chang Quang-ean eta Miren Vidal eta Iker García 60 kilokoan. Boxeoa ere izan genuen Astelenan: lau borrokaldi eta sanda modalitateko hiru.





Boxeo emanaldia izan zen, urtero lez, Sanjuanak inguruan.
Behean, Manu Agirrek judoko 7. Dana jaso zuen.



**XAKEA.-** Deportiboko talde biak Gipuzkoako txapeldun izan ziren, bakoitza bere mailan. Horrez gain, Gorengoen mailan inoizko talde gazteena aurkeztu zuen. Jubenil eta kadete mailako Euskadiko txapelketa jokatu zen Eibarren, kadeteetan Julen Garrok irabaziz. Edu Olabek Gipuzkoako txapelketa irabazi du jubeniletan. Eibarko Hiriaren 25. edizioa San Viatorrekoentzat izan zen. **EHIZA.-** Diana elkarteko Iñigo Gisasolak eskualdeko txapelketa irabazi zuen. Dianako barne txapelketan, bestalde, Enrike Isasik irabazi zuen eta, nagusien artean, J.M. Isasik. **TIROA.-** Pitxoi tiraldi jardunaldi mordoa izan dira Arrateko tiro-pitxoian. Tiro neumatikoan, Dinbi-Danbak San Juan eta San Andres torneoak. **GOLF.-** Deba bailarako golf txapelketa antolatu zen Larrabean, eibartarrak nagusituz: Inazio Garate, Xabier Castañón eta Juan Etxeberria izan ziren podiumean.



Deporreko talde biek igo dute mailaz.



Xake taldeak gero eta gazteagoak dira txapelketetan.







Pablo Gaztelu arku-tiralaria. Goian, San Viator xake taldekoak. Behean, Dianako txapelketa bateko irabazleak.



Larrabean jokatu zuen golfisten taldea.



Mustra txakurrak jardun zuten Sanjuanetan Olabeko zelaian.



Iñigo Gisasolak eskualdeko ehiza txapelketa irabazi zuen.

api 353
Larragest
INMOBILIARIA
Bidebarrieta, 12 Tel. 690 610715

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

**GIMNASIA ERRITMIKOA.-** Ipurua Gimnasia Erritmikoek asko berritu dituzte taldeak, batez ere nagusienenak. Hala ere, 20 domina irabazi zituzten Gipuzkoako txapelketan. Maider Jiménez eta Helena Jauregi Espainiako txapelketetara joan ziren. San Andres Torneoaren XI. edizioa jokatu zen, nazioarte mailan eta talde mordoarekin. **AUTOMOBILISMOA.-** Arrateko Auto Igoeran, López Fombona eta Iñigo Martínez izan ziren garaile; antolakuntza maila bikaina izan zen. Azpeitiko Rallya Escuderia Eibarkoentzat izan zen. Monte-Carlo Historique izan ziren berriro Holke eta Beorlegi. **MOTOZIKLISMOA.-** Iñaki Del Reyk Supermotardeko Euskadiko txapelketari eustera irten zen, Zintronikon irabaziz. Aitor Monterok 3. postua lortu zuen Alcarraseko Pirelli Superstock Series-ean. Mayer Outeriño motorzalearen debuta eman zen.



Ipurua taldeko ordezkariek jardunaldiak eman dituzte eskualdean.



López Fombona eta Iñigo Martínez izan ziren Arrateko Auto Igoerako irabazleak.



Escuderia Eibarko ordezkariek hainbat sari jaso dituzte azken denboraldian.



Holke eta Beorlegi Montekarlon izan ziren beste behin. Mayer Outeriñoren debuta eman da.





Olatz Ibaibarriagaren saio bateko irudia, aroarekin.



Iñaki Del Reyk SuperMotard modalitatean jardun du.



Aitor Montero Pirelli Superstock Series-ean hartu du parte.

URKIZU, 7 ☎ 943 82 04 94 / 943 12 11 20 Faxa: 943 12 11 40
uthemek@uthemek.com
UTHEMEK
UTILES Y HERRAMIENTAS PARA EL MECANIZADO, S.L.
SPK- Zeramika, silizioa
ISCAR - Trontzaketa eta fresadorarako erreminta bereziak
ROY - Diamante eta boraxezko harriak

ELGOIBARko SAN MIGEL gaineko
BELAUSTEGI jatetxean
IDIAZABALGO GAZTA eta
OTAZU Bodegetako ardoen uztartzea
DASTATZE AFARIEN 2. JARDUNALDIA
zapatuan, hilaren 16an
Prezioa: 50 euro Erreserbak: Tel. 943 74 31 02

# OSASUN

## Dentistak


odontologia
biologikoa eta orokorra
terapia neurala

miren albistegi sojo

arragueta, 2 - bis B
t. 943 208 330

T. Anitua 16, behea
Tel. 943 20 73 57
AMAÑA
HORTZ KLINIKA

ARAT Hortz Klinika
Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura
943 20 18 51

eibartarren irribarrea pizten
Bista Eder
Bista Eder, 19 - behea
Tel. 943 70 00 82
943 20 84 75
✓ Inplanteak
✓ Ortodontzia
✓ Zuritzea
✓ Hortz-estetika
grupo innova dental

Pedro Etxeberria Gisasola
DENTISTA
09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO
Calbeton 19 - 3. ezk.
Tfnoa: 943 20 72 17

GASTESI
Hortz-Klinika
Jesus Mª Gastesi - Ane Gastesi
Odontologia orokorra / Ortodontzia / Laser Teknologia
Bidebarrieta, 10-2. eskuma 943 70 00 90

RPS 04/02
IRAZABAL
clínica dental
J. Etxeberria, 12 - 1. esk. Tel. 943 208552
A. Zulueta, J. Etxaniz eta S. Sierra DOKTOREAK
ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Inplanteak
Hortz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE
DENTISTA
Untzaga 5 - 4. .......... 943 70 23 85
EGUNERO

invisalign
Ikusten ez den ortodontzia
Ortodontzia ume eta helduentzat
Mª Dolores Olaizola Doktorea
EIBARKO ZENTRO MEDIKOA
Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

RPS 336/05
MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN ODONTOLOGOA
Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak
Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

UNTZAGA
hortz-klinika
egunero
Untzaga, 2 - 1. Eskuma
Tfnoa. 943 70 25 92


## Errehabilitazioa


CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA
* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
* Logopedia
* Inkontinentzia urinarioak
* Kirol medikuntza
* Ama izateko prestakuntza
Muzategi 2 (EIBAR) Tfnoa. 943 20 34 46
San Ignacio 2 (ELGOIBAR) Tfnoa. 943 74 33 74

Patronato Eibarrés
Errehabilitazioa eta Fisioterapia
ZENTRUKO SENDAGILEA: Ibarra doktorea
Urkizu 9 - behean
EGUNERO (08.00 - 19.30)
Tfnoak. - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58
Faxa - 943 12 03 58


## Estetika klinika


abontza
clínica estética
Barizeak
Kirurgia Estetikoa
Dietetika eta Nutrizioa
Gorputz Birmoldaketa
Fotodepilazio Medikoa
Egigurен, 6 behea - Telf.-Fax. 943 206 044
www.clinica-abontza.com


## Fisioterapia


ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.
ARRAGUETA, 20
TLF: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com
FISIOTERAPIA ZENTRUA

FISIOTERAPIA
ENEKO MAILAGARAI
901 kolegiatu zkia.
San Agustin, 2-4 - M lokala
Tel. 622 14 58 58

– fisioterapia
– osteopatia
– errehabilitazioa
Manu Sánchez FISIOTERAPEUTA
Juan Gisasola, 14
Telefonoa: 943 12 70 78

# GIDA

## Kirol medikuntza

KIROL MEDIKUNTZA
indartu
ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- Odol analisiak
- Elektroterapia
- Fisioterapia
- Urgentziak
- Esfortzu probak
- 3. adinekoen mantenimendua
- Kontsulta medikoak
- Errekonozimendu medikoak
- Masaje terapeutikoa
- Kirol masajeak

ERA GUZTIETAKO MUTUA ETA ASEGURUEKIN KONTZERTATUA

Diputazio, 8-10 48260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16
Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskalnet.net

## Okulistak

Centro de Oftalmología Avanzada

- Jose Alberdi Alberdi

OKULISTAK

EGUNERO ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuartea
Tfnoa: 943 20 19 82

Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmologi Klinika

Plaza Barria, 2 - 2º
Tfnoa.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia

HELBIDE BERRIA
T. Etxebarria (Dos de Mayo), 5 - 1. A
943 12 14 93

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943, 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOA
Maider
Lopez
Etxeberria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
(Ume eta helduendako)

Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria 10 - 6. ezk. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15
Artekalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

UME ETA HELDUENDAKO
PSIKOLOGIA
KABINETEA

Arrate
Garitaonandia

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
TRATAMENDUAK

Bidebarrieta, 27-B (3. atea) 943 20 22 66
a_garitaonandia@terra.es

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behea
Telf. 943 206823 eta 686 859023

**Hemen zure tokia izan nahi baduzu
deitu 943-206776 telefonora**

## Mahai-ingurua museoaren urteurrenean

**ASTELEHENEAN, HILAREN 18-AN, ARMAGINTZAREN MUSEOA** zabaldu zela hiru urte beteko dira eta, hori dela eta, 16.00etatik 20.00etara zabalik egongo da. Gainera, sarrera doan izango da. Bestalde, astelehenean bertan, 19.00etan, Portaleko areto nagusian "Eibartar armaginak Gernikan: 1913" izenburuko mahai-ingurua hasiko da. Antxon Narbaizak, Igor Goñik eta Angel Etxanizek hartuko dute parte, Nerea Alustiza moderatzailearekin batera.



Orain dela hiru urte zabaldu zen Arma Museoa Portaleko 5. pisuan. / Ekhi Belar

**Ordutegi berria**

Bestalde, urriaren hasieraz geroztik ordutegi berria sartu da indarrean museoan: astelehen eta martitzenetan itxita egongo da eta eguaztenetik zapatura, berriz, 16.00etatik 20.00etara zabaltzen jarraituko dute; eta domeketan 10.00etatik 13.00-etara egongo da zabalik.

# laburrak

**HARIXA EMOTEN OTSAILEAN**

– Literatura tailerrak otsailaren 9an izango du hurrengo zita. Uxue Alberdiren "Aulki Jokoa" irakurri eta gero, oraingoan Mikel Peruarenaren "Ez obeditu inori" liburua irakurri eta horren inguruko tertulia egingo dute taldekideek. Taldea eginda dagoen arren, edonork du parte hartzeko aukera. Horrela nahi izanez gero, deitu 943200918 telefonora. Tertuliak ...eta kitto!-n izaten dira arratsaldeko 19.00etan, gutxi gorabehera, bi hiletik behin.

**MOGEL ISASIKO LOTERIA**

– Mogel Isasiko 4. mailako ikasleen loteria kobratzeko Toribio Etxebarria kaleko Kutxara jo daitekeela adierazi dute ikastetxeko arduradunek.

**EZKER BATUAREN LOTERIA**

– Alderdi politiko honetako loterian saritutako zenbakia kobratzeko Eli Gómez-ekin harremanetan ipini behar da, 943121983 edo 943708429 telefono zenbakian.

**COCIDITO MADRILEÑO**

– Amañako Jai Batzordearen eskutik ailegatuko da Glu Glú taldearen antzezlan ezagunaren bigarren zatia. Radio Euskadiko saioan oinarritutako antzezlana hilaren 22an esakiniko da, 20.30etan Coliseoan eta sarrerak 20 eurotan eskuratu daitezke herriko hainbat tabernatan.



## Umeendako antzerkia Coliseoan

**COMPAÑÍA ÑÍA TALDEAREN ESKUTIK** "Chiqui y Chico" umeendako ikuskizuna taularatuko da bihar Coliseoan, 18.00etatik aurrera. Txikienentzat pentsatutako antzezlanaren ardatza musikak osatzen du eta sarrerak 4 euro balio du.

## Kultura sailburuordea Udal Artxiboan

**GAUR GOIZEAN INAUGURATU DUTE, MODU OFIZIALEAN,** Eibarko Udal Artxiboaren egoitza berria, udaletxeko 4. solairuan. Ekitaldian, besteak beste, Antonio Rivera Kultura sailburuordeak parte hartzea zegoen aurreikusita. Azken urteotan Portalean egon den artxiboak iazko azaroaren hasieran estrenatu zuen behinbetiko egoitza, udaletxeko azken solairuan. Bertan artxiboa osatzen duten agiri guztiak behar den moduan sailkatuta eta gordeta daude: batetik, artxibo historikoak 1409. urteaz geroztik pilatutako dokumentazioa hartzen du eta, bestetik, artxibo nagusian administrazio-balioa duten eta Udalak etenbarik sortzen dituen espedienteak daude jasota. Instalazio berriak artxiboa kontsultatu nahi duen jendearentzat gune berezia eskaintzen du, beste hainbat berritasunekin batera.



## Argazkiak eta Durangaldeko artistak Portalean

**AURREKO BARIXAKUAN INAUGURATU ZUTEN PORTALEAN** Eibarko Klub Deportiboko Argazki Taldeko kideen erakusketa kolektiboa. Urtarrilaren 31ra arte ikusgai egongo den erakusketa ohiko ordutegian bisitatzeko aukera izango da: martitzenetik domekara, 18.30etatik 20.30etara. Eta erakusketa areto berean Durangaldeko Artisten Elkartekoen artelanak ikusteko aukera ere izango da, ordutegi berean, baina hilaren 24ra arte. Bizkaitarrak luzaroan izan dira gurean erakusketarik ipini barik, baina Eibarko Artisten Elkartearekin egindako elkarlanari esker Durangaldeko artisten lanak ezagutzeko aukera eskaintzen du martxan dagoen erakusketak eta, aurrerago, eibartarren lanak Durangon ikusgai ipiniko dituzte.



# Danborradaren kontzertua domeka eguerdian Coliseoan

**SAN SEBASTIAN EGUNA GOGOAN**, Usartza Txistulari Bandak urteroko martxari jarraituko dio eta, aurten ere, Danborradaren Kontzertua eskainiko du, Cielito Musika Bandaren eta Eibarko Danborradaren danborrek eta barrilek lagunduta. Domekan, urtarrilaren 17an izango da kontzertua, 12.30etan Coliseoan. Hamabost pieza eskainiko dira Jose Miguel Laskurainek zuzenduko duen kontzertu berezi honetan: “Debako Martxa”, “Diana Txikia”, “Diana”, “Eibarko Herria”, “Idiarena”, “Urnietako Ereserkia”, “Eibarko Martxa-Alperrak”, “Danborren Polka”, “Mutriku Herria”, “Retreta”, “Pantxika”, “Hau dek hau”, “Katiuska”, “Debako Martxa” eta “Tatiago”.





**Salmenta ordutegia (…eta kitto!): astegunetan, 10.00etatik 14.00etara eta 16.00etatik 20.00etara**

# Pirritx eta Porrotx otsailean etorriko dira Eibarrera

**OTSAILAREN 26-AN ETA 27-AN** izango dira Pirritx eta Porrotx pailazoak gurean, “Irriaren lagunak” euren azken ikuskizuna eskaintzen. Barixakuan 17.00etan eta 19.00etan izango dira saioak eta zapatuan, berriz, 16.00etan eta 18.30etan. Funtzio guztiak Hezkuntza Esparruko areto nagusian izango dira. Sarreren salmenta datorren astean hasiko da, …eta kitto! Euskara Elkarteko bazkideentzat: bazkideek martitzenetik aurrera izango dute sarrerak erosteko aukera, …eta kitto!-ren egoitzan bertan (Urkizu, 11 solairurartea). Bazkide bakoitzak gehien jota 3 sarrera erosteko aukera izango du (6 eurotan), hilaren 29ra arte. Behin bazkideentzat salmenta amaituta, hilaren 30ean bertan bazkide ez direnek ere izango dute sarrera erosteko aukera, 6’50 eurotan, honako salmenta puntuetan: El Tío Palancas (Juan Gisasola kalean), Geltoki (Toribio Etxebarria kalean) eta e&m argazki dendan (Urkizun).



# Txistorra eguneko saria Oberenan

**AURTENGO TXISTORRA EGUNEAN** egindako zozketan Sari Nagusia agertu ez denez, Eibarko Txirrindularien Elkarteak saria eman barik lagatzea erabaki du. Horregatik, Euskolabela duten produktuak erosteko 300 euroko balea, argazkian ikus daitekeen moduan, Oberena harategiak Txirrindularien Elkarteari itzuli dio eta elkarteak, Oberena harategiaren, Euskolabel-en eta herritar guztien laguntza eskertu nahian, otar “mundial” hori harategiari bueltatu dio-eta, Euskolabel produktuak bertan erosten dituzten herritarrek otar horren zozketan parte hartzeko aukera izango dute.







## Atzegiren aldeko margo erakusketa



Elkartearen 50. urteurrena dela-eta, antolatu da Atzegiren aldeko margo erakusketa berezia. / Leire Iturbe

**BIHAR, 12.30-ETAN INAUGURATUKO DUTE UNTZAGA JUBILATU ETXEAN** hainbat artistaren lanekin osatutako erakusketa-tonbola: artista bakoitzak artelan bi eman ditu, Atzegi adimen urritasuna dutenen elkartearentzat dirua batzeko helburuarekin, elkartearen 50. urteurrena aitzakiatzat hartuta. Cristina Azpirik koordinatutako erakusketan, besteak beste, honako artisten lanak batu dituzte: Aitor Cano, Ander Agirrebeña, Arrate Etxaburu, Arrate Etxeberria, Arrate Osoro, Aurora Baskaran, Begoña Domínguez, Begoña Eizagaetxeberria, Charo Gil, Cristina Azpiri, Elisabet Eguren, Esteban Oroz, Esther Fernández de Maruri, Enriqueta Juaristi, Gloria Ibarluzea Giménez, Javi Larreategi, Jose Larrañaga, José Agustin Larrañaga, Juan Serrano, Leire Kareaga, Loli Blanco, Luis Cardona, Mari Hernández, Marina Pérez, María Rodríguez, Maria Eugenia López de Gereñu, Marina Barrena, Marisa Arrillaga, Mª Fran Ereña, Maite Errasti, Mireia Agirrebeña, Mila Quintanilla, Oscar García eta Paco Pérez.

Hilaren amaierara arte martxan egongo den erakusketa honako ordutegian zabalduko dute: astelehenetik barixakura, 19.15etatik 21.15etara eta zapatu eta domeketan 12.00etatik 14.00etara. Bestalde, eta erakusketa martxan dagoela aprobetxatuta, Atzegi elkartearen jardueren berri emateko informazio-puntua egongo da bertan.

## Gabonetako marrazki lehiaketa

**URTEROKO OHITURARI JARRAITUTA, GALIZIAKO ETXEAK** umeendako marrazki lehiaketa antolatu du Gabonen inguruan. 6 eta 12 urte bitarteko hainbat umek hartu zuten parte zapatu arratsaldean egin zen lehiaketan eta parte-hartzaile guztiek opariren bat jaso zuten. Gainera, nagusienen mailan irabazten duen umearen marrazkia Galiziako Etxeko 2010eko Gabonetako Postala egiteko erabiliko dute.







## Ordutegi berezia liburutegian

**HILAREN 7-AZ GEROZTIK ETA OTSAILAREN 29-RA ARTE**, ikasleek azterketak hobeto prestatu ahal izateko, ordutegi berezia izango du Juan San Martin Liburutegiak astelehenetik barixakura: 09.00etan zabaldu eta 20.30etan itxiko dute, eguerdian itxi barik. Bestalde, Valeriano de la Calle Pérez eibartarrak Olentzeroren bisitan eta Erregeen Kabalgatan ateratako argazkiak liburutegiko blogean (http://eibarkoliburutegia.blogspot.com/) ikusgai daude.

## EUSKARAREN TXOKOA

**EUSKARARA ITZULITAKO IDAZLANEN BILDUMA.** Hori da Susa argitaletxeak sarean jarri duena, `Euskarari ekarriak´ atari berrian. Gaur arte euskarara itzulitako 913 idazleren berri ematen du ekarriak.armiarma.com atariak; halaber, ehundik gora hizkuntzatatik itzulitako 2.197 idazlanen erreferentziak jasotzen ditu. Adar hori Susa argitaletxeak orain dela hamar urte inguru hasitako literatur atariaren ondorioetako bat da. Egitasmoa EIZIE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearekin lankidetzan gauzatu dute Susak eta Armiarma elkarteak. Idazle bakoitzaren biografia entziklopediko bat eta euskarara itzulitako lanen erreferentzia zehatza emateaz gain, testuak irakurtzeko aukera ere ematen du atariak. Egitasmoa, gainera, ez da itzulitako liburuen bilduma egitera mugatzen, baizik eta aldizkarietan argitaratutako poema edo ipuin solteen berri ere jasotzen du.

# laztanak emoten...

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.**



Zorionak, IRAIA, hillaren 4an sei urte bete zenduazelako. Illargiraiño eta bi buelta maite zaittugu. Aitta, ama eta Martxelen partez.



Zorionak, MARWA Andaloussi, hillaren 1ian urtia bete zenduan-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, JONE, hillaren 5ian hamar urte bete zenduazen-eta. Muxu haundi bat aitta, ama eta Malenen partez.



Zorionak, MALEN, atzo urte bi egin zenduazelako. Amama Manoli, Ana eta aitxitxa Imanolen partez.



Zorionak, ANE, martitzenian bost urte beteko dozuz-eta. Laztan haundi bat famelixa osuaren partez.



Zorionak, NORA, martitzenian zazpi urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat amatxo eta aitatxoren partez.



Zorionak, JON Bereziartua Etxaide, martitzenian urte bi egin zenduazen-eta. Famelixaren partez.

## JAIOTAKOAK

- **Aiora Ballesteros Díez.** 2009-XII-26.
- **Mikel Iriondo Labado.** 2009-XII-28.
- **Amaia Plaza Stodulka.** 2009-XII-29.
- **Mohamed Amin El Moussaoui.** 2009-XII-31.

## HILDAKOAK

- **Pedro Teruel Raboso.** 81 urte. 2010-I-2.
- **Amalia Gómez Soler.** 88 urte. 2010-I-2.
- **Marisol Aranzeta Unzalu.** 77 urte. 2010-I-3.
- **Mateo Gutiérrez Gutiérrez.** 80 urte. 2010-I-4.
- **Jose Luis Iglesias Cid.** 61 urte. 2010-I-4.
- **Santa Amondarain Bilbao.** 85 urte. 2010-I-7.
- **Pilar Abarrategi Esteibar.** 81 urte. 2010-I-8.
- **Juan Díaz Díaz.** 83 urte. 2010-I-8.
- **Juan Ormaetxea Arizmendi.** 46 urte. 2010-I-8.
- **Josefa Bergaretxe Oñaederra.** 94 urte. 2010-I-8.
- **Mercedes Ugarte Ormaetxea.** 87 urte. 2010-I-8.
- **Ines Lonbide Urzelai.** 80 urte. 2010-I-8.
- **Maria Guenetxea Lazpita.** 85 urte. 2010-I-9.
- **Secundino Loidi Erkizia.** 90 urte. 2010-I-9.
- **Pilar Uruñuela Alba.** 50 urte. 2010-I-10.
- **Carmen Sarasketa Aranzeta.** 84 urte. 2010-I-13.

## zinea Coliseoan

**15ean, 20.30etan; 16an, 17.00, 19.45 eta 22.30etan**
**17an, 20.00etan; 18an, 20.30etan**

### "Solomon Kane"

*Zuzendaria:* **Michael Bassett**
*Aktoreak:* **James Purefoy, Pete Postlethwaite, Max Von Sydow, Jason Flemyng...**



Solomon Kane XVI. Mendeko hiltzaile profesionala izan da. Ingalaterraren izenean mundu guztian dihardu "lanean". Afrikara ailegatzerakoan izandako esperientziak hilketak alde batera lagatzera eramango du, baina...

### "El cónsul de Sodoma"

*Zuzendaria:* **Sigfrid Monleón**
*Aktoreak:* **Jordi Mollá, Alex Brendemühl, Bimba Bosé, Josep Linuesa...**




Jaime Gil de Bidema poetaren bizitzari errepasoa egiten dio filmak. Bartzelonako goi burgesiako kide da, nazioarteko enpresako exekutiboa, baina bestalde, homosexuala eta poeta, bere familiari aurre egin nahian dabilen pertsona...

### "Todos están bien"

*Zuzendaria:* **Kirk Jones**
*Aktoreak:* **Robert De Niro, Drew Barrymore, Kate Beckinsale, Sam Rockwell...**




Alargundu berri den gizonak bidaia berezia egitea erabaki du. Bere seme-alabak bisitatzea erabaki du, bere goibeltasunari aurre egiteko. Baina, gauzak ez dira esperotakoa, bere seme-alabak ez dira berak pentsatzen zuen bezain zoriontsu...

## Ego Ibar

### "La desconocida"

*Zuzendaria:* **Gius. Tornatore**
*Aktoreak:* **Michel Placido, Kseniya Rappoport, Claudia Gerini, Margherita Buy...**




Aurretik irainak eta bortxa asko jasan duen Irena Ukrainako neska gaztea Italian hasten da lanean, Adacher familiarendako. Integratzea lortuko du, baina aspalditik ezagutzen duen Muffa proxenetaren presentziak tragedia zabalduko du inguruan...

## horoskopoa

**ARIES**
Txipa erabat aldatu duzu urte berriarekin. Gauzak beste modu batean ikusten dituzu eta horrek egunerokoan lagunduko dizu.

**TAURUS**
Gabonetan hartutako kiloekin zer? Ez dituzu soberan, baina lehengo gorputz liraina berreskuratzeko ariketak egin beharko dituzu.

**GEMINI**
Hilabete falta da, baina hasi zaitez pentsatzen Aratosteetan nola jantzi. Beti azken orduan ibiltzen zara; ea oraingoan ez den horrela izaten.

**CANCER**
Tenperatura baxuen aurrean ondo tapatu eztarria. Ez zabiltza sasoirik onenean; beraz, gaixotzeko aukera handiagoak dituzu.

**LEO**
Besteen laguntza jasoko duzu momentu txarrenetan. Ez duzu esan behar izango, zure aurpegiak barruko tristura islatzen du.

**VIRGO**
Olentzerok ez badizu nahi zenuena ekarri badakizu, datorren urtean hobeto portatu zaitez. Hala ere, ikatza ez zegoen hain txarra, ezta?

**LIBRA**
Besteekiko harremanean jarrera aldatu duzu: gozoagoa zara eta jendeak eskertzen du aldaketa hori. Hala ere, ez zaitez gozoegia izan.

**SCORPIUS**
Kontuz zer jaten duzun beherakoa izateko aukera handiak dituzu-eta. Ez zenuke egun osoan komunean igaro nahi, ezta?

**SAGITTARIUS**
Betebehar guztiak sasoiz egingo dituzu eta atsedenerako denbora gehiago izango duzu. Ondo aprobetxatu aisirako denbora hori.

**CAPRICORNIUS**
Urte hasieran gauza onak besterik ez zaizkizu gertatu; beraz, ezin zara kexu. Sasoi positiboa ahalik eta luzeena izaten saiatu zaitez.

**AQUARIUS**
Zenbat jan eta zenbat edan Gabonetan. Gauza da zure gorputza erritmo horretara ohitu dela. Ea nola ematen diozun buelta egoerari.

**PISCIS**
Elurra egiten duenean pozez zoratzen ipintzen zara, baina iritziz aldatuko duzu gertatuko zaizunarekin. Elurra hobe etxe berruan zaudenean egitea.

## Barixakua 15

**KONTZERTUA**
**23.00.-** Hikara taldea. Ez Dok tabernan.

## Zapatua 16

**SAN ANTON JAIAK**
**10.30.-** III. San Anton Xake Txapelketa. Azitaingo plazan.
**10.30.-** Pelota-jaialdia. Altzubarren frontoian. Mountain Bike Martxaren hasiera (Azitaingo plazan).
**12.00.-** Umeendako jolasak: lapiko-apurketa, kaskara-batzea, untxia harrapatzea…
**13.30.-** Sari-banaketa ekitaldia. Azitaingo plazan. Parte-hartzaile eta joaten direnentzat txorizoa eta edaria doan.



**UMEENDAKO ANTZERKIA**
**18.00.-** *"Chiqui y Chico"* (Compañía Ñia). Sarrera: 4 euro. Coliseoan.

## Domeka 17

**SAN ANTON JAIAK**
**12.00.-** Meza herrikoia. Azitaingo parrokian.
**13.00.-** Umeendako oparien-zozketa, elizan. Euskal dantzak, Kezka taldearekin. San Anton 2010 otarren zozketa.

**DANBORRADAREN KONTZERTUA**
**12.30.-** Danborradaren kontzertua, Usartza Txistulari Bandaren eskutik, Cielito Musika Bandak eta Eibarko danborradako danborrek eta barrilek lagunduta. Coliseoan.

**UMEENDAKO ZINEA**
**17.00.-** *"Planet 51".* Sarrera: 2'80 euro. Amaña kultur aretoan.

## Astelehena 18

**MUSEOA**
**16.00/20.00.-** Ate Irekiak Armagintzaren Museoan (Portalean, 5. pisuan). Sarrera doan.
**19.00.-** Mahai-ingurua: *"Eibartar armaginak Gernikan: 1913".* Hizlariak: Antxon Narbaiza, Igor Goñi eta Angel Etxaniz. Moderatzailea: Nerea Alustiza. Portalean (areto nagusian).

**PROIEKZIOA**
**19.00.-** *"To shoot an elephant"* (Gaza-ri buruzko dokumentala). Tallarra gaztetxean.

## Martitzena 19

**IKASTEN**
**10.00.-** *"Grandes tesoros de la arqueología II".* Hizlaria: Mª Jose Noain. (Aulas Kutxarekin elkarlanean antolatuta). EPAn (Isasi, 39).

## Eguaztena 20

**DOKUMENTALA**
**19.00.-** *"The Weather Underground"* pelikularen emanaldia. Tallarra gaztetxean.



## Eguena 21

**IKASTEN**
**10.00.-** *"La mujer en la historia".* Hizlaria: Montse Garate. EPAn (Isasi, 39). EPAn (Isasi, 39).

**EGO IBAR ZINE KLUBA**
**17.30 eta 21.00.-** *"La desconocida"* (Zuz: Giuseppe Tornatore). Sarrera: euro 2. Hezkuntza Esparruan.

## DENBORAPASAK

SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 6 | | | 5 | 7 | 8 | | |
| | 4 | 5 | | | 3 | 2 | 6 | |
| | 2 | | | | | | | 3 |
| | | | | | | 3 | 7 | 4 |
| | | | 3 | 2 | | | 1 | 5 |
| 5 | | 3 | | | | | 2 | |
| | | 4 | 1 | | | | 3 | 9 |
| | | 7 | | | | 1 | | |
| 6 | | | | 9 | | | 8 | 2 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 | 7 | 6 | 8 | 2 | 9 | 1 | 5 | 3 |
| 9 | 1 | 5 | 6 | 4 | 3 | 8 | 2 | 7 |
| 8 | 3 | 2 | 5 | 1 | 7 | 6 | 4 | 9 |
| 1 | 2 | 9 | 7 | 8 | 4 | 3 | 6 | 5 |
| 3 | 5 | 7 | 2 | 6 | 1 | 4 | 9 | 8 |
| 6 | 8 | 4 | 9 | 3 | 5 | 7 | 1 | 2 |
| 2 | 9 | 3 | 1 | 7 | 6 | 5 | 8 | 4 |
| 5 | 4 | 1 | 3 | 9 | 8 | 2 | 7 | 6 |
| 7 | 6 | 8 | 4 | 5 | 2 | 9 | 3 | 1 |

AURREKOAREN EMAITZA

## eguraldia (EUSKALMET.NET)



## erakusketak

– Urtarrilaren 24ra arte

***GURUTZE MUJIKA***ren margo erakusketa. *Topalekuan.*

***DURANGALDEKO ARTISTEN*** Elkartekoen erakusketa. *Portalean.*

– Urtarrilaren 31ra arte

Eibarko Klub Deportiboko ***ARGAZKI TALDEAREN*** erakusketa. *Portalean.*

***GORKA VICENTE***ren argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

***AITOR AULESTIARTE***ren "Begiradak". *Depor tabernan.*

***FREDERIC GARRIDO***ren "Nindas". *El Ambigú tabernan.*

Hainbat artistaren ***ERAKUSKETA-TONBOLA***. *Untzaga Jubilatu Etxean.*




**ANTZERKIA:**
*Chiqui y Chico.* Urtarrilak 16, 18.00.

*laster salgai*

**MUSIKA:**
*Piano Jaialdia.* Urtarrilak 31, 11.00.

## farmaziak

***15, barixakua***
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

***16, zapatua***
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

***17, domeka***
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

***18, astelehena***
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

***19, martitzena***
EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 20)
GAUEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 20)

***20, eguaztena***
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

***21, eguena***
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

***22, barixakua***
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

## ikastaroak

**- Sendian programa (adineko ezinduak zaintzeko).**
Noiz: Otsailaren 2, 3, 4, 5 eta 8an, 15.00etatik 17.00etara, Portalean (ikastaro gelan).
Izen-ematea: Urtarrilaren 29ra arte, Pegoran (doan).

## lehiaketak

**- `Aratosteak 2010 Eibarren´ kartel lehiaketa.**
Lanak aurkezteko epea eta informazioa: Urtarrilaren 15era arte, Pegoran.

**- Antzez Artikulu eta Gidoientzako Narruzko Zezen Sariak.**
Lanak aurkezteko epea: Urtarrilak 22ra arte, Hezkuntza Esparruan. Informazioa: eibarres@terra.es

**- 3D Counter Strike.**
Lanak aurkezteko epea: Otsailaren 5era arte. Informazioa eta materiala: www.iesunibhi.com

**- Industriagintzari buruzko IV. Argazki Lehiaketa.**
Lanak aurkezteko epea: Otsailaren 26a. Informazioa: Armeria Eskolan (aaa@armeriaeskola.com

**- XX. T. Etxebarria Sariak.**
Lanak aurkezteko epea: Urtarrilaren 28ra arte. Informazioa: www.bicberrilan.com

## telefono jakingarriak

SOS deiak ........................*112*
Pegora ............................*010*
Udaletxea .........*943 70 84 00*
Portalea............*943 70 84 39*
Udaltzaingoa.....*943 20 15 25*
Mankomunitatea*943 70 07 99*
Debegesa..........*943 82 01 10*
KIUB .................*943 20 38 43*
Epaitegia ..........*943 03 34 00*
Iberdrola ..........*901 20 20 20*
Naturgas...........*902 12 34 56*
DYA Larrialdiak.*943 46 46 22*
Gurutze Gorria..*943 22 22 22*
Mendaro osp.....*943 03 28 00*
Anbulategia......*943 03 25 00*
Torrekua...........*943 03 26 50*
Errepideak........*902 11 20 88*
Ertzaintza .........*943 53 17 00*
Eusko Tren .......*902 54 32 10*
Pesa .................*902 10 12 10*
Taxiak...............*943 20 30 71*
.........................*943 20 13 25*
Alkohol.Anon. ..*629 14 18 74*
Al-Anon/Alateen *650 26 59 63*

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 07.30, 08.50, 10.30, 13.30, 14.30 eta 18,30. Laneguna: 07.00, 08.00, 15.30 eta 21.05. Jaieguna: 09.30, 13.30, 18.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 12.30, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30, 13.30, 14.30 eta 18.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara orduro. Zapatua eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara orduro. Zapatua eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro. **EIBAR-GASTEIZ.** Egunero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapatua: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaiegunak: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egunero: 08.30, 12.30, 16.30 eta 20.30. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.30 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.30 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaiegunak: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapatua: 14.00. Domeka eta jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatua: 14.30. Domeka eta jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.30. Domeka eta jaiegunak: 12.30 eta 19.30. **ERMUA-MENDARO.** Astelehenetik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdiro). Zapatua-Domeka-Jaiegunak: 06.50-etik 21.50-era orduro. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55etatik 21.55etera orduerdiro. Zapatua-Domeka-Jaiegunak: 07.55-etik 21.55-era orduro.

## tren ordutegiak

**EIBAR-BILBO.** Lanegunak: 06.13etatik 21.13etara orduro. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 05.57etatik 20.57etara orduro. + 09.34 eta 20.34. **EIBAR-DURANGO.** Egunero: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 06.13etatik 20.13etara orduro. + 10.35 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Lanegunak: 05.47etatik 20,47etara orduro.




# MATRIKULA ZABALIK

*otsailaren 5era arte*

*Ikastaro presentzialak:*

- *Ordutegi eta maila guztiak*
- *EGA eta* ***HABEren azterketak balio ofizialarekin*** *(Administrazio, Osakidetza eta Ertzaintzaren perfilen baliokideak)*
- *Zibergela: ordenagailuak, internet...*

Eibarko Udal Euskaltegia
25. urteurrena

**EIBARKO UDAL EUSKALTEGIA**

**Bista Eder 10 -PORTALEA-**
euskaltegiaeibar@telefonica.net
Telefonoa: 943 70 09 12 Faxa: 943 82 00 89

FISIOTERAPIA ZENTRUA
Ane Mendia
970 kol. zkia.

Kirol lesioak
Masajeak
Erreuma
Tendinitisak
Bizkarreko minak
Esginzeak
Etxez-etxeko zerbitzua




Arragueta, 20 - behea Tel.: 943 530642

UNBE

ORBEA























ZORIONAK!
eta
2010.
URTE
kirolari
ON!

Eibarko Kirol Patronatoa
Patronato Municipal de Deportes de Eibar